

## **IDEIA:**

Ikasle eta langileen denbora librea planifikatzen duen zerbitzua eskaintzen dugu. Lanpeturik dagoen jendeari eta gauza asko egin behar dituen jendeari bere denbora librea planifikatu nahi diogu, haien egunerokoa errazteko. Askotan denbora asko galtzen dugulako zer egin behar dugun pentsatzen eta hori aurrera eramaten, horregatik, gure helburua, planifikazio denbora hori aurrezte da.

App bat egitea de gure helburua, bezeroek app -ean datu guztiak sartu beharko dituzte. Lehenik eta behin egin behar zehatzak jartzea eskatuko du app -ak, ordu batean eta leku batean egin beharrekoak, eskola edo lan orduak, entrenamenduak edo seme-alabak jasotzeko ordua adibidez. Bigarrenik, gainerako eginbeharrak, ikastea behar diren gaiak (eta zeintzuk eskatzen duten denbora gehiena, zailtasunaren arabera), etxerako lanak edo etxean egin beharreko lanak adibidez.

Bakoitzaren egitekoez gain, sozializatzeko denbora ere jarriko da ordutegian, ingurukoekin egotea onuragarria baita. Gainera, kiroltik egiten ez dutenei kirola egiteko denbora ere eskainiko diegu ordutegian, denbora badutela eta haien osasunerako lagungarria dela adieraziz.

Guzti honez gain, aplikazioak notifikazioak ere bidaliko ditu, egunean egin beharrekoaz abisatuz eta eginda ez dauden betebeharrak hurrengo egunean gehitzeko aukerarekin.

Aplikazioa eta gure zeregina azaltzeko webgune bat ere sortu dugu. Hurrengo da haren linka: <https://sites.google.com/durangojesuitak.org/starhorarios/inicio>